

## FAGOLLAGA (HERNANI) ZENTRALAREN DESKRIPZIO TEKNIKO EKONOMIKOA

### AURREKARIAK ETA MOTIBAZIOAK.

FAGOLLAGA, S.A. zentrala URUMEA arroan, HERNANI udalerrian, EREINOTZUn zehazki, kokatuta dagoen zentral txiki bat da (100kW). Zentral honekiko erlazioak bi urtetik pasa dirau. Zenbait hurbiltze saio egin ditugu bertan parte-hartze publiko-pribatua aurrera eramateko aukera bilatuz. Egungo legeak herriei dakarkien zailtasunak ikusi ondoren, azkenean baloratzen da NAFARKOOP zuzenean elkarte honetan sartzea.

Zentrala mini-hidroelektrikoa da. Kokapena, egoera eta mantentze lanak direla eta, sorkuntza taldetik ontzat jotzen da zentral hau lortu ahal izatea. Ekoizpen aldetik hobekuntzak egin daitezke, baita modernizatzeko eta ekipamenduen aldetik ere. Irakaskuntza zentro apropos moduan erabil daiteke eta, CIFP USURBIL LHII bezalako entitate kolaboratzaileekin koordinatuta hobekuntzak egin daitezke nahiz hori bezalako zentroei eduki berriak eskain ditzaten lagundu, irakaskuntza munduarekin elkarlan adibide garbia da.

### INFORMAZIO TEKNIKO<sup>1</sup>.

FAGOLLAGAko zentralaren ekoizpena jario nahikoa izateari, zentralako turbina mugitzeko adinako ur emariari, alegia, lotuta dago. UR emari maximoa 4500 l/s-koa da eta emari ekologikoa<sup>2</sup>, berriz, 1600 l/s-koa.

Ur aprobetxamendurako emakida 2061ko urtarrilaren 1a bitartekoa da, 43 urteko bizitza, alegia.

Zentralak deribazio-presa txiki bat du turbinari eragiteko gutxieneko (5,7 metro) ur jauzia sortzeko. Horrexegatik, ur jauziaren ondoan arrain eskala bat dago jarrita itsasotik datozenak pasatu dezaten. Zentralak makina eraikin propioa du eta turbina FRANCIS<sup>3</sup> motatakoa da.

Aprobetxatu daitezkeen ur emaria eta ur jauzia kontuan hartuta, zentralak 900MWh/urtean ekoitzi dezake baina ekoizpen erreala erdia da (450MWh).

Arrazoi nagusiak hauek dira: ur emari ekologikoari zor diogun errespetua, ur emari txikiekin ezin turbina mugitu eta programatu gabeko geldialdiak; izan ere, berrarmatzea in situ egin behar baita.

---

<sup>1</sup> Lortutako informazioa Hernaniko Udalak ACTIVA INGENIEROS enpresari eskatutako auditoriaren garapenera esker izan da, bertan NAFARKOOP-ek aktiboki lagundu du.

<sup>2</sup> [https://es.wikipedia.org/wiki/Caudal\\_ecol%C3%B3gico](https://es.wikipedia.org/wiki/Caudal_ecol%C3%B3gico)

<sup>3</sup> [https://es.wikipedia.org/wiki/Turbina\\_Francis](https://es.wikipedia.org/wiki/Turbina_Francis)

Horiek guztiak kontuan hartuta, zentralak hobekuntza-tarte handia du, ondoren doazen hobekuntzak eginez gero:

- Telekudeaketa - Teleagintea.
- Bigarren turbina bat izatea.
- Pikoia garbitzeko tresnak hobetzea, sarrerak lohiz betetzea ekiditeko.

### INFORMAZIO EKONOMIKOA.

Zentralak ha. bateko terrenoak ditu atxikita, emakida-titularitatearekin banaezinak, eta zentralaren beraren eraikin bat. Lurren, eraikinen eta produzioren tamainaren balorazio-tasazioa egin da (EBITDA) eta datuak NY-eko STERN tauekin gurutzatu eta ikusi da elkartearen kontabilitate balioa balorazio errealitatearekin bat datorrela.

Beste zenbait jarduera egitea beharrezkoa izango dela kontuan hartuta, zentralaren erosketa eta lehen hobekuntzak egiteko 150.000€-ko balorazioa egin da.

Zentralak, lehen urtean kudeaketa hobeturik, lehen urtean 10,000€-ko urteko balantze positiboa izan dezake (handizkako merkatuko prezioan salduta). Ondoren egin beharreko hobekuntzek egungo produzihoa handitu eta, ondorioz, emaitzak hobetuko lituzkete.

Ezin dugu ahaztu, instalazio osoa GOIENER-ren esku egonda, aukera hobeezina dela ekoizle baten ordezkari loturiko lanak ikertzeko, eta, hartara, arlo honetako beste zenbait bazkideri zerbitzu hobe eskaintzeko.

### INTERESA DUEN GAINERAKO INFORMAZIOA

Zentralak eskaintzen duen beste abantailetakoa bat kokapena da, oso egokia bazkideekin topaketak egiteko, oso egokia ikuspegi pedagogikotik, teknologiarantz hurbiltze aldetik eta gizartean izan dezakeen eragina ikuste aldetik, ingurumena.

CIFP USURBIL LHII-rekin elkarlana, nahiz HERNANIKO UDALA-k zenbait lan elkarrekin egiteko azaltzen duen prestutasuna, erakargarriago bihurtzen dute proiektua jarduera mota hauen garapenean urrats sozialagoa, justuagoa eta solidarioagoa emateko orduan.

